

18-05-2024

Ibilbide zirkularra. Iturriotzetik igoko gara Saibira, eta “*bidexka liluragarria*” jarraituz, Gatzaietatik eta Elosuko lepotik bueltako gara.

Mañaria herritik Urkiolako mendaterantz irtengo gara eta biribilgunean eskuinera egingo dugu Urkuleta haranean sartzeko. Bertan, San Lorentzo basiliza eta egoera ezin hobean dagoen karobi bat aurkituko ditugu.

Saibi (954m). Iturriotzetik igo eta Gatzaietatik jaitsi.



Urkuleta auzoa zeharkatu eta gero, asfaltoa utzi eta lurrezko bide batetik hasiko gara, eta kilometro bat egin ondoren, errekaen parez pare doan bidexka bat hartuko dugu ezkerretara. Lehenengo, haltzadi bat zeharkatu behar da, eta, gero, pagadi ederra, Akalarrako lepora heltzeko.

Saibi (954m). Iturriotzetik igo eta Gatzaietatik jaitsi.



Bertatik gertu dagoen Iturriotz lepora pasako gara, eta zementuzko pista batetik 500 metro ibili eta gero, ezkerretara hartuko dugu bidexka aldapatsu bat, Saibira zuzen igotzeko. Saibigain 954m. Tontorra begiratoki bikaina da, eta gurutze bat dago, gerrako erorien omenez.

Saibi (954m). Iturriotzetik igo eta Gatzaietatik jaitsi.



Alanbre-hesiaren paraleloan jaitsiko gara, Urkiolako mendatera doan pistarantz. Bidean Urkiolako Parke Naturaleko interpretazio zentro interesgarria bisitatu ahal dugu. Urkiolako mendatea eta santutegia, Kantauri eta Mediterraneo arteko uren banalerroa markatzen duen lekua. Zaharberitutako elurzuloa eta urkidi eder bat ikusi ahal ditugu ere bai. Horiek ematen diote izena Parke Natural honi (urkia). Bertatik gurutze-bidea jarraituz hiru gurutzeen begiratokira helduko gara.

Begiratokitik GR-38tik jaitsiko gara Gatzaieta baserritik pasatuz, ondoan beste karobi bat eta iturria dago. Pinu eta zipres plantazioak zeharkatuz helduko gara Elosuko lepora. GRari jarraituz, San Martin baselizara jaitsiko gara (iturria). Aurrerago, artadi batetik jaitsiko gara eta, baserri inguru bat zeharkatuz, Mañariko plazara helduko gara.

Compártelo:

[Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on X \(Opens in new window\)](#)

[Click to email a link to a friend \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela +800 /-800

Luzera 16km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

9:30etan Mañariko plazan

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Mañaria

Irteerarako izena emateko azken eguna

18-05-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura

Bestelako oharrak

Argibide gehiago

Ruben 639197758

